



1. IBILBIDEA Oiz inguratzen

FITXA TEKNIKOA



ZAILTASUN MAILA

Oso gogorra



IRTEERA

Durango



HELMUGA

Durango



DISTANTZIA

42,21 km



IGOERA METATUA

1.280 m



IRAUPENA

3ordu


IBILBIDEA Durango – Oiz (San Kristobal) – Ziortzako Kolejiata – Muñozguren – Trabakua – Andikoa - Durango

ZAILTASUNA Fisikoki gogorra da eta teknika aldetik erraza.

ZORU MOTA %80 asfaltoa edota porlanezkoa eta %20 mendi pista.

OHARRAK Ia dena porlanezko pistetatik denez, oso aproposa da zorua bustita dagoenean.

PERFILA





DESKRIBAPENA

1. IBILDIDEA Oiz inguratzen

Ibilbide honetan Oiz mendia guztiz inguratuko dugu. Bertatik begi-bistan dugun paisaia paregabea da: Urdaibaiko kostaldea, Gipuzkoako zenbait mendikate, Gorbeia eta Durango inguratzen duten mendi zoragarriak.

Durangoko Madalena plazatik Frantzisko Ibarra kalea zeharkatu eta N-634 errepidea gurutzatuko dugu Iurretarrantz.

Behin errepidea gurutzatuta, eskumatarara dagoen lehenengo bidea hartuko dugu San Mames ermitarrantz. Autopista gainetik pasatuko gara eta bi kilometrotan errepide aldapatsu bat igoko dugu San Juan ermitara heldu arte. Hortik 300 metrora dagoen bidegurutzean ezkerretara hartuko dugu Goiurirantz (BI-3341) eta, aurrerago, 900 metrora, eskumara dagoen Oiz mendira doan bidea hartuko dugu. Forestala pasatu eta pista nagusiari jarraituko diogu Oizko San Kristobal ermitara (12,8 Km) heldu arte, irteera honen punturik altuena. Hemen ezkerretara hartuko dugu porlanezko bide estuago batetik (2 Km gutxi gora behera eta oso aldapatsuak).

Beheko bidegurutzean (15 Km), eskumarantz hartuko dugu Kortaun auzorantz.

Kontuz! Kortaunen (18 Km) pista nagusia utziko dugu eta eskumatarara, basorantz sartuko gara. Segituan, hesi bat pasatuko dugu eta jarraian beste bat.

Ondoren, 3,5 Km egingo ditugu basoko pista batetik beherantz, Ziortzara. Ziortzako Kolejiatara (21,5 Km) heldutakoan, BI-4401 errepidea hartuko dugu baina 800 m egin ondoren, errepide nagusia (22,3 Km) utzi eta Muñozgurenera igoko gaituen pista aldapatsua hartuko dugu eskumarantz. Ondorengo 2,3 Km-ak oso aldapatsuak dira eta goian (24,6 Km) ezkerretara, Muñozgurenera, hartuko dugu. Muñozgurenetik Trabakuara jaitsiko gara BI-4403 errepidetik. Trabakuan Berrizera doan BI-633 errepidea hartuko dugu eta, Berrizera heldu baino lehenago (34,7 Km), eskumatarara dagoen Besoita auzora igoko gara. Baserri bideetatik Andikoara igo eta, ondoren, Ereñara jaitsiko gara eta, bertatik, Durangora helduko gara.



1. IDILBIDEA Oiz inguratzen

MAPA

